

Ihare Gorostizu Iturbe

D maila • **Aipamena**

Kaixo, Ihare Gorostizu naiz eta Beasaingo Loinazpe institutoan ikasten dut. 12 urte ditut eta DBH1en nago. Nire zaletasunak irakurtzea eta kirola egitea dira. Palan jokatzan dut eta gitarra ere jotzen dut. Idazlan hau jolas bezala idazten hasi nintzen, ea gustatzen zaizuen.



BASO MAGIKOA

Bazen behin, baso baten erdian zegoen txabola bat. Txabolan ez zen inor bizi, aspaldian hil ziren jabeak eta beste inork ez zuen txabolan bizi nahi. Txabola txikia zen eta atzeko aldean lorategi bat zegoen. Lorategian zuhaitz bat. Zuhaitzaren enborrean eguzki baten marrazkia ageri zen. Eguzkia ukituz gero, zuhaitzak baso majiko batera eramaten zuen.

Egun batean neska batek zuhaitzean zegoen eguzkia ukitu eta zuhaitzak neska Baso Magikora eraman zuen. Neskak Maddi izena zuen eta 9 urte zituen. Ile beltza eta motza zuen. Basora heldu zenean, Maddi harrituta geratu zen. Zuhaitzak altu-altuak ziren eta belarra berde-berdea zen. Bat-batean animalia piloa ikusi zituen lasterka. Anari izutu egin zen. Animaliak pasatzen ari zirenean, txori txiki bat hurbildu zitzaion.

-Nor zara zu eta zer egiten duzu hemen? -Galdetu zion txoriak.

-Nire izena Maddi da eta ez dakit zer egiten dudan hemen. Zer gertatzen da, zergatik zoazte lasterka?

-Basoa hiltzen ari da, baina ez dakigu zergatik. Bizitzeko leku berri baten bila ari gara -erantzun zuen txoriak.

-Eta zuk nola duzu izena?

-Lur naiz.

Geroz eta animalia gehiago hasi ziren inguratzen.

-Goazen azkar hemendik.

Maddi eta Lur animalien atzetik lasterka hasi ziren. Ordu batzuk lasterka igaro ondoren belardi zabal batera iritsi ziren.

-Hemen geldituko gara egun batzuetan atseden hartzeko -esan zuen aurrean zegoen azeri batek.

-Nor da? -Galdetu zion Maddik Lurri.

-Gure buruzagia da, baso magikoko animaliarik jakintsuena.

-Dakizuen bezala, baso magikoa hiltzen ari da -jarraitu zuen azeriak.

-Eta zein da arazoa? -Galdetu zuen erbi batek.

-Oraindik ez dakigu -esan zuen-. Gure basoko animalia jakintsuenak arazoa zein izan daiteken ikertzen ari dira.

PROSA

-Ba al dago baso magikoa babesten duen ezer? -Galdetu zion Maddik Lurri.

-Bai. Basoaren erdian bada zuhaitz bat, basoko zuhaitz handiena. Basoa sortu zenetik dago han, animalia gutxi dakite non dagoen.

-Eta zuk badakizu?

-Bai, zergatik?

-Ideia bat bururatu zait -esan zuen Maddik-. Litekeena da zuhaitzari zerbait gertatzea eta horregatik aritzea basoa hiltzen.

-Baliteke.

Eta biak zuhaitza zegoen tokira abiatu ziren. Iritsi zirenean, zuhaitzaren gainean zegoen eguzkia ukitu eta Baso Magikotik irtetea lortu zuten.

Arratsalde guztia Maddiren etxean igaro zuten, landareei buruzko kontuak ikertzen. Zuhaitzera iritsi zirenean, ikusi zuten zuhaitza erdi ustelduta zegoela. Arratsaldean zuhaitzak zergatik usteltzen ziren aztertzen aritu ziren eta honako erantzunak aurkitu zituzten: ur faltagatik, ur gehiegiagatik, kutsadurarengatik edo norbaitek pozoiren bat botatzeagatik. Maddi pentsatzen aritu zen. Bazekien ezinezkoa zela kutsadurarengatik izatea, basoa garbi-garbi zegoen eta ur faltagatik edo ur gehiegiagatik ere... Basoko animalia batek zuhaitza pozoitu zuen.

Gauean berriro Baso Magikora bueltatu ziren.

-Ba al dago egiten duzuenarekin ados ez dagoen animaliarik?

-Ez dut uste- erantzun zion Lurrek-. Baina badago bat gurekin ibiltzen ez dena.

-Eta nor da?

-Basurdea.

Maddi eta Lur Azeria bisitatzera joan ziren beraien ideiak azaltzeko. Maddik den-dena kontatu zion.

-Egia da Basurdea aspalditik dagoela gurekin haserre. Aspaldi-aspalditik, Basurdeak zuhaitza mozteko agindu zien bere seme-alabei eta denak hil behar izan genituen. Hori kontuan hartuta, litekeena da Basurdeak zuhaitza pozoitu izana.

-Orduan basurdea bisitatzera joango gara -esan zuen Maddik.

Maddi eta Lur Basurdearengana joan ziren. Basurdea kobazulo batean bizi zien, bakar-bakarrik.

-Egun on, Basurde jauna -esan zuen Maddik-. Sartu al gaitezke?

-Bai -erantzun zuen Basurdeak gogo txarrez.

-Zu izan al zara basoko zuhaitz magikoa pozoitu duena?

-Zer esan duzu? -Esan zuen Basurdeak harrituta-. Zuhaitza pozoitu dutela? Ezin dut sinetsi, nolatan ez zitzaidan ideia hori bururatu?

-Orduan, ez zara zu izan? -Galdetu zuen Lurrek.

-Ez.

Berriro ere Azeriarengana joan ziren. Azeria harrituta geratu zen.

-Ba al dago inor zuekin ibiltzen ez dena? -galdetu zuen Maddik.

-Ez dakit. Zuhaitza pozoitzeko pozoio oso indartsua behar da.

-Badakit -esan zuen Lurrek-, Otsoarengana joango gara, basoko sendagilea denez, belarrez asko jakingo du.

Horrela, otsoa bisitatzera joan ziren. Otsoa basoko kobazulo handienetako batean bizi zen, bere familiarekin.

-Egun on, Otso jauna, galdera bat egitera gatoz -esan zuen Lurrek-. Zein belar erabili beharko litzateke pozoio oso indartsu bat egiteko?

PROSA

-Madinat al-Qamar izeneko landare bat, oso zaila da lortzen. Ez zait landare hori geratzen. Atzo Hartzari saldu nion neukan azkena.

-Orduan Hartza bisitatzeraz joango gara, ba al dakizu non bizi den?

-Normalean erreka-aren ondoan ibiltzen da.

-Eskerrik asko -eta elkar agurtu zuten..

Osoak esan bezala, Hartza erreka-aren ondoan zegoen, zuhaitz baten itzalean.

-Arratsalde on, Hartza jauna. Ezagutzen al duzu Madinat al-Qamar izeneko landarearen bat?

-Ez, ez dut nire bizitza osoan horrelako izena duen landararik ikusi.

-Gezurretan ari da -esan zuen Lurrek Hartzak ez entzuteko moduan.

-Ziur zaude? Osoa bisitatzetik gatoz eta esan digu atzo saldu zuela azkeneko landarea eta zuk erosi zeniola.

-Hori ez da egia! Osoa gezurretan ari da!

-Guri iruditu zitzaigun egia esaten air zela.

Hartzak, piska batean pentsatzen aritu ondoren, esan zuen:

-Bai, egia da. Nik erosi nuen landare hori.

-Zergatik?

-Igela-ekin tratatu bat egin nuen -esan zuen Hartzak-. Nik landarea erosi eta berari ematen banion berak arrain onenak dauden erreka-ko zatia erakutsiko zidan.

-Eskerrik asko egia esateagatik -esan zuen Lurrek.

Iluntzen ari zenez, Azeri-arengana joan ziren eta ikertu zuten guztia kontatu zien.

-Igela izan daiteke zuhaitza pozoitu duena, baina ez dut ulertzen zergatik egin duen.

-Orain berandu da, baina bihar goizean joango gara Igela-arengana.

Hurrengo goizean Igela-arengana joan ziren. Igela ere, Hartza bezala, erreka-aren ondoan aurkitu zuten.

-Egun on. Ba al zenekien zuhaitz magikoa pozoitu dutela? Pozoi oso indartsua erabili dute eta pozoia hori egiteko Madinat al-Qamar izeneko landare bat erabili dute.

-Ez nekien ezer.

-Eskerrik asko -agurtu zuten.

Zuhaitz baten itzalean eseri ziren, Igela-ak esan ziena hausnartzeko.

-Zuhaitza pozoitu dutela esatean harridura aurpegia jarri du, ez zuen ematen bazekienik. Baina landarearen izena aipatu duzunean aurpegia aldatu zaio -esan zuen Lurrek.

-Bai. Igela-ak zerbait daki, baina ez du ematen kontatu nahi digunik.

Hitz egiten zeudela orein gazte bat hurbildu zitzaien.

-Kaixo, entzun dut zuhaitza nori pozoitu duen ikertzen ari zaretela.

-Bai.

-Orain dela egun batzuk, basoa hiltzen hasi baino lehenago, Sugea eta Igela batera ikusi nituen kobazulo batetik gertu. Igela-ak Sugeari zerbait eman zion, landare moduko bat. Pentsatu dut garrantzitsua izango zela.

-Bai, eskerrik asko.

Igela-arengana joan ziren berriro.

-Hobe duzu dena kontatzea -hasi zen Maddi-. Badakigu hau guztia hasi baino lehen Sugea-ekin egon zirela eta landare moduko bat eman zeniola.

PROSA

-Bai, Sugearekin egon nintzen. Sugeak landarea eskatu zidan, baina ni ez nintzen ausartzen landarea eroatera eta Hartzarekin tratatu bat egin nuen. Baina nik ez nekien Sugeak zuhaitza pozoituko zuenik.

-Eskerrik asko.

Orain bazekiten erruduna Sugea zela. Azeriarekin eta Otsoarekin bildu ziren eta dena kontatu zieten.

Azkenean Sugeak egia kontatu zuen, baina zuhaitza pozoitzeagatik hil beharra izan zuten eta Igela eta Hartza, zer egiten zuten jakin gabe baina Sugeari laguntzeagatik kobazulo batean giltzapetu zituzten. Zuhaitzari pozoia atera zioten, Maddi etxera bueltatu zen eta dena konpondu zen.